


Esperimentazioa Kimikan	3. Praktika Disoluzioen prestaketa.	E.U.P./U.E.P. Donostia				
<table style="width: 100%; border: none;"> <thead> <tr> <th style="text-align: center; border: none;"><u>Materiala</u></th> <th style="text-align: center; border: none;"><u>Erreaktiboak</u></th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td style="border: none; vertical-align: top;"> Pipeta / Bureta  Matraze aforatua  Erloju-beira  Prezipitatu-ontzia  Inbutua </td> <td style="border: none; vertical-align: top;"> NaOH  HCl </td> </tr> </tbody> </table> <p style="margin-top: 20px;">Disoluzioak bi edo osagai gehiagoz eraturako nahaste homogeenak dira. Proportzio handienean aurkitzen den osagaiari disolbatzaile esaten zaio eta txikienera dagoenari solutu.</p> <p>Solutu eta disolbatzaile kantitateen arteko erlazioari kontzentrazioa esaten zaio eta adierazteko modu ezberdinak daude:</p> $\% \text{ pisuan} = \frac{\text{g solutu}}{\text{g disoluzio}} \cdot 100$ $M = \frac{\text{n solutu}}{\text{L disoluzio}} = \frac{\frac{\text{g}}{\text{Pm}}}{\text{L}}$ $N = \frac{\text{solutu baliokide}}{\text{L disoluzio}} = \frac{\frac{\text{g}}{\text{Pe}}}{\text{L}} = \frac{\frac{\text{g}}{\text{Pm/bal}}}{\text{L}}$ <p style="margin-top: 20px;">Solido-likido eta likido-likido disoluzioak prestatuko dira. Horretarako ondorengo pausuak jarraituko dira:</p> <p><b>Disoluzio bat nola prestatu:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <u>Produktu solidoetatik abiatuz:</u> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sustantziaren purutasuna kontutan hartu ondoren, kalkulatu eta pisatu egiten da behar den kantitatea.</li> <li>- Prezipitatu ontzi batean disolbatzen da solutua ur destilatu pixka batean.</li> <li>- Prestatuko nahastea matraze aforatura pasatzen da, inbutuaren laguntzaz, eta erabilitako ontzian geratzen diren hondakinak ere, ur destilatuaren laguntzaz, matrazera pasatzen dira.</li> <li>- Matrazean daukagun disoluzioa prezipitatu ontziaz arrasatzen da. Horretarako, likidoa bero badago, hozten utzi behar da aurrena.</li> </ul> </li> </ul>			<u>Materiala</u>	<u>Erreaktiboak</u>	Pipeta / Bureta Matraze aforatua Erloju-beira Prezipitatu-ontzia Inbutua	NaOH HCl
<u>Materiala</u>	<u>Erreaktiboak</u>					
Pipeta / Bureta Matraze aforatua Erloju-beira Prezipitatu-ontzia Inbutua	NaOH HCl					

<p><b>Esperimentazioa Kimikan</b></p>	<p><b>3. Praktika Disoluzioen prestaketa.</b></p>	<p><b>E.U.P./U.E.P. Donostia</b></p>
---	---	--


- Produktu likidoetatik abiatuz:
  - Erreaktiboaren purutasunari begiratu ondoren, kalkuluak egin, behar den gramo kantitatea jakiteko.
  - Dentsitatearen bidez bolumena kalkulatu.
  - Pipeta (beti udarea erabili) edo bureta bat erabili, behar den bolumena hartzeko, matraze aforatura pasatu, eta urez, lehen bezala, osatu bolumena.



<b>Esperimentazioa</b> <b>Kimikan</b>	<b>3. Praktika</b> <b>Disoluzioen prestaketa.</b>	<b>E.U.P./U.E.P.</b> <b>Donostia</b>
--	--	---

### Likido baten bolumena neurtuz

Laborategian likido baten bolumena maiz neurtu behar izaten da. Zehaztasunaren arabera probeta, bureta, etab. erabili daitezke.



### Alde esperimentalak

1.- Presta ezazu 1 M den azido klorhidriko disoluzio baten 100 mL, %35 purutasuna eta 1,18 g/mL dentsitatea duen azido klorhidriko komertzial batetik abiatuz

2.- Presta ezazu 0.1 M den sodio hidroxido disoluzio baten 100 mL

3.- Presta ezazu 1) galderan esandako disoluzioa eta ondoren, disoluzio horretan oinarrituz, presta itzazu:

- a) 0.1 M den disoluzio baten 10 mL.
- b) 0.01 M den disoluzio baten 10 mL.